

Zorionak Juan Usarralde Lasquibar!

.-100 urte bete ditu astearte honetan andoaindar honek

.-Andoni Alvarez alkatearen eta Haizea Barandiaran Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaren bisita jaso ditu bizitoki duen Done Joan Bataiatzailea Zahar egoitzan

Andoainen, 24-07-09.- Gaurko egunez 100 urte bete ditu Juan Usarralde Lasquibar andoaindarrak. Ez da balentria makala Juanek lortutakoa, hori dela eta, Andoni Alvarez alkatearen eta Haizea Barandiaran Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaren bisita jaso ditu. Udaletzeko erreplikaren irudia eta lore-sorta jaso ditu oroigarri gisa.

Gaur gaurkoz Done Joan Bataiatzailea Zahar egoitzan bizi da Juan. 100 urtean, denetarik bizitzea egokitu zaio: gerra zibila oso txikia zela, frankismoaren hastapenak... Artzain jardun zen soldaduska egin aurretik eta ondoren. Garaiko egoera ez zen samurra ordea, eta anaia Argentinan bizitzen zuela probestuz, bertara joan zen bizitzera. Han eman zituen bere bizitzako urte asko.

Edonola, erretiroa hartuta, sorterrira itzultzeko erabakia hartu zuen Juanek, eta hainbat urtez arrebarekin bizitzen egon ostean, egun Done Joan Bataiatzailea Zahar egoitzan du bizitokia.

Bere senide, lagun, Zahar egoitzako langile eta egoiliarrekin batera ospatu du Juanek bere mendeurrena. Bejondeizula, eta zorionak Juan!

